

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Casto Arregi Aranburu

*Alkiza,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Alkizako plazako Madrigalberri etxean jaioa. Aita nafarra zuen, Uharte-Arakilgoa, eta ama, berriz, alkizarra. Aitak txikitan ez omen zekien euskaraz besterik, baina oso ume zela Nafarroako Pitillas herrira eramán zuten, eta han erdaraz bizi beharraren beharrez, euskara ahaztu omen zitzaion. Herrian ezagunak ziren bere aitaren euskara xeblearen inguruko kontuak. Castok, beraz, erdara erraz samar ikasi zuen. Gainera, kale etxean bizi zirenez, lau urte betetzerako eskolara bidali zuten Casto. Eta baserritarrak eskolatik atera eta lanera joaten ziren bitartean, Casto eta gainontzeko Alkizako kalekumeak pilotan ibili ohi ziren. Hala, bi anaia pilotari profesionalak izandakoak ditu. Gaztetan Zubillaga tailerrean ibili zen lanean zazpi urtez. Baina aita perratzailea zuen, eta anaia ere "Albaitari perratzaile" lanetan jarri zuten zuzenean soldaduskan, hark ere ondo ikasia zuen ofizioa. Beraz, perratzaile lanetan hasi ziren bi anaiak, eta Anoetan egin zuten etxea. Negozioa Alkizatik Anoetara pasa eta bertan hartu zuen erretiroa.

Zintak

ALK-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-18
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com